



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Industria Sailburuordetza
Energiaren, Meategien eta Industria
Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y
MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Industria
Dirección de Energía, Minas y
Administración Industrial

GAIA: ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRIA (EEZ) EUSKADIKO ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRIEN ERREGISTROAN (ERREGISTROA) INSKRIBATZEKO IZAPIDEARI BURUZKO ZALANTZEI ENERGIAREN, MEATEGIEN ETA INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARITZAK (EMIAZ) EMANDAKO AZALPENAK.

Dokumentu hau emanda, EMIAZen helburua da teknikari ziurtatzaileek eta hauek kide dituzten elkargo profesionalek helarazitako zenbait zalantza argitzea eta horiei erantzutea, ERREGISTROAn zenbait kasu espezifiko inskribatzeko izapideei dagokienez.

Proiektuaren ziurtagiri energetikoa alde aurretik inskribatu gabe bukatutako obraren ziurtagiri energetikoa inskribatzeari buruzko argibideak:

Urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege Dekretuak, Eraikin eraiki berrien eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duenak, nahitaezkoztat jotzen zuen obra berrietarako haren sustatzaileak edo jabeak autonomia-erkidegoko organo eskudunaren aurrean bukatutako eraikinaren EEZa aurkeztea, baina ez zuen betebeharrak bera ezartzen proiektuaren EEZa-ren kasuan.

Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri guztiak ERREGISTROAn inskribatu behar dira, honakoak indarrean jarri zirenetik: *apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretua*, Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duena (urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege Dekretua indargabetzen duena) eta autonomia-erkidego honetan hura garatzen duen araudia; hasiera batean, Eraikinen Eraginkortasun Energetikoa Ziurtagiriari buruzko abenduaren 9ko 226/2014 Dekretua, eta, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtaginari eta ziurtaginaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretua.

Urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege Dekretua indargabetu zenean, eraikitze prozesuan zeuden obra berrien eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko, ERREGISTROAn izapidetza-aplikazioan izapide mota berezia jaso zen (c) Bukatutako eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria inskribatzea, proiektua aurretik inskribatu gabe) obra bukatuaren EEZa inskribatu ahal izateko, proiektuaren EEZa aurretik inskribatu gabe, obra hauek ez baitaude behartuta azken hori inskribatzera.

Horregatik guztiagatik, *apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuaren* eraginpean dauden eraikuntza-obra berriei, **proiektuaren EEZa, ERREGISTROAn inskribatuta, jaso beharko dute egikaritze-proiektuan, berau bisatu baino lehen**. Eraikina kokatzen den autonomia-erkidegoko ziurtagiri energetikoaren arloan eskuduna den organoaren aurrean EEZa erregistrorako aurkezteko betebeharrak ez betetzea, bere erregistrorako, **ARAU-HAUSTE LARRI** moduan tipifikatuta dago *Lurzoruari eta Hiri-birgaitzeari buruzko Legean* (urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, *Birgaitzeari eta Hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzko ekainaren 26ko 8/2013 Legearen* hirugarren xedapen gehigarria indargabetzen duena). Ziurtagin energetikoaren arloko arau-hauste larriak 601 eurotik 1.000 eurora bitarteko isunekin zeha daitezke.

ASUNTU: ACLARACIONES DE LA DIRECCIÓN DE ENERGÍA, MINAS Y ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL (DEMADI) A DUDAS RELATIVAS A LA TRAMITACIÓN DE LA INSCRIPCIÓN DEL CERTIFICADO DE EFICIENCIA ENERGÉTICA (CEE) EN EL REGISTRO DE CERTIFICADOS DE EFICIENCIA ENERGÉTICA DEL PAÍS VASCO (REGISTRO).

Mediante el presente documento esta DEMADI tiene como objetivo aclarar y dar respuesta a diversas dudas, transmitidas por el personal técnico certificador y los colegios profesionales a los que pertenecen, en relación con la tramitación de la inscripción del CEE de ciertos casos específicos en el REGISTRO.

Aclaraciones a la inscripción de la certificación energética de obra terminada sin inscripción previa de la certificación energética de proyecto:

El *Real Decreto 47/2007, de 19 de enero, por el que se aprueba el Procedimiento básico para la certificación de eficiencia energética de edificios de nueva construcción*, establecía que, para obra nueva, el CEE del edificio terminado debía presentarse, por la persona promotora o propietaria, ante el órgano competente de la Comunidad Autónoma, no estableciendo la misma obligación para el CEE de proyecto.

Con la entrada en vigor del *Real Decreto 235/2013, de 5 de abril, por el que se aprueba el procedimiento básico para la certificación de la eficiencia energética de los edificios*, derogando el *Real Decreto 47/2007, de 19 de enero*, y el desarrollo reglamentario del mismo en esta comunidad autónoma, inicialmente mediante el *Decreto 226/2014, de 9 de diciembre, de certificación de la eficiencia energética de los edificios* y actualmente mediante el *Decreto 25/2019, de 26 de febrero, de certificación de la eficiencia energética de los edificios en la Comunidad Autónoma del País Vasco, su procedimiento de control y registro*, **todos los certificados de eficiencia energética pasaron a ser objeto de inscripción en el REGISTRO**.

Para la certificación de la eficiencia energética de aquellas obras nuevas que en el transcurso de su ejecución se vieron afectadas por la derogación del *Real Decreto 47/2007, de 19 de enero*, es por lo que en la aplicación de inscripción en el REGISTRO existe el trámite *c) Inscripción del certificado de eficiencia energética de edificios terminados sin inscripción previa del proyecto*, para que pueda inscribirse el CEE de obra terminada no estando el CEE de proyecto previamente inscrito, por no ser obligatoria para las mismas la inscripción de este último.

Por todo ello, las obras nuevas de edificación afectadas por el *Real Decreto 235/2013, de 5 de abril*, **están obligadas a tener incorporado en su proyecto de ejecución, y de manera previa al visado del mismo, el CEE de proyecto inscrito en el REGISTRO**. Incumplir la obligación de presentar el CEE ante el órgano competente de la Comunidad Autónoma en materia de certificación energética de donde se ubique el edificio, para su registro, está tipificado como **INFRACCIÓN GRAVE**, por la *Ley del suelo y rehabilitación urbana, aprobada mediante Real decreto legislativo 7/2015, de 30 de octubre*, que deroga la Disposición Adicional Tercera de la *Ley 8/2013, de 26 de junio, de Rehabilitación, Regeneración y Renovación Urbanas*. **Las infracciones graves en materia de certificación energética pueden ser sancionadas con multa de 601 a 1.000 euros**.

Proiektuaren EEZa inskribatuta ez duten obra berriko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapena inskribatzea ahalbidetzeko, nahitaezkoa den ala ez alde batera utzita, ERREGISTROaren izapidetza-aplikazioan, *c)Bukatutako eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria inskribatzea, proiektua aurretik inskribatu gabe* izapide mota erabilgarri dago. Izapide horretara sartzeko EMIAZ honi sarbidea eskatu behar zaio registrocee@euskadi.eus posta elektronikoaren bidez, inskripzioa eskatzeko izapidea egingo duen pertsonaren izena, abizenak eta NAN zenbakia adieraziz. **EMIAZ honek izapide horretara sartzeko baimena emateak ez du esan nahi bere garaian proiektuaren EEZa inskribatu behar izan ez zenik, eta, beraz, dagozkion zehapen-prozesuak hasi ahal izango dira.**

Otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuaren 2.2 artikuluari buruzko argibideak, kasu bereziak:

Artikulu horrek ezartzen duenez, dekretu horren ondorioetarako, eraikin berrien parekotzat hartuko dira lehendik dauden eraikinen kasuak, arkitektura-konfigurazioa aldatzen duten esku-hartzeak izan badituzte. Esku-hartze osotzat hartuko dira kanpoko osaera orokorrean, bolumetriari edo egitura-sistema osoan funtsezko aldaketa eragiten duten esku-hartze partzialak, edo haren erabilera bereizgarriak aldatzea helburu dutenak.

Eraikin berriekin parekatzeak dakarrena da, batez ere, proiektuaren EEZaren eta obra bukatuaren EEZaren erregistroa **obra berri moduan izapidetzeko betebeharra**. Proiektuan nahiz obra bukaeran lortutako kalifikazio energetikoa C baino hobea edo berdina denean, sustatzaileak edo jabeak ziurtapen energetikoaren kontrola kontratatatu beharko dio agente akreditatu bati, eta kontrol hori proiektu-fasean nahiz egikaritze-fasean egin beharko da.

Bereizketen kasu zehatzetan, lehendik dagoen higiezin batetik hainbat higiezin berri sortzen dira; beraz, horien guztien ziurtapen energetikoa aurreko paragrafoetan adierazitakoaren arabera erregistratu behar da.

Era berean, **berezko erabileraren aldaketak**, hau da, bizitegi-erabilera pribatua izatetik bizitegi-erabilera pribatua ez izatera aldatzen direnak, eta alderantziz, ziurtapen energetikoa izatera behartuta daude, obra berriak balira bezala; izan ere, kalifikazio energetikoari dagokionez EKTak ezarritako eskakizun bereziak nahitaez bete behar dituzte, aurreko egoeran ez zituztenak, eta berezko erabileraren aldaketa izan ez balitz bete beharko ez lituzketenak.

ERREGISTROAn inskribatutako ziurtagirietan akatsak edo zehaztugabetasunak zuzentzea:

EEZa dagoeneko inskribatuta dagoela, **lortutako kalifikazio energetikoari eragiten dion akatsen bat edo zehaztasun-gabeziaren bat** hautematen bada, energia primario ez-berritzagarriaren kontsumoan eta CO₂ igorpenetan lortutako balioak ere kontuan izanik, **inskrribapena ezereztea eskatu** beharko da, eta, horren ondoren, EEZ zuzenduaren inskrribapena berriro eskatu.

EEZa dagoeneko inskribatuta dagoela, ikusten bada **akatsen bat edo zehaztasun-gabeziaren bat** dagoela ERREGISTROari

Con el fin de posibilitar la inscripción de la certificación de la eficiencia energética de aquellos edificios de obra nueva que no dispongan de CEE de proyecto inscrito, independientemente de que les sea o no obligatorio, en la aplicación de inscripción en el REGISTRO se mantiene el trámite *c) Inscripción del certificado de eficiencia energética de edificios terminados sin inscripción previa del proyecto*, para acceder al cual es necesario solicitar acceso a esta DEMADI a través del correo electrónico registrocee@euskadi.eus, indicando nombre, apellidos y nº de DNI de la persona que vaya a realizar el trámite de solicitud de la inscripción. **El que la DEMADI autorice el acceso a realizar este trámite en ningún caso supone que se haya eximido de la obligación de haber debido inscribir en su momento el CEE de proyecto por lo que podrán iniciarse los procesos sancionadores pertinentes.**

Aclaraciones al artículo 2.2 del Decreto 25/2019, de 26 de febrero, casos específicos:

El citado artículo establece que a los efectos de dicho Decreto, se asimilarán a edificios de nueva construcción los casos de edificios existentes sometidos a intervenciones que alteren su configuración arquitectónica, entendiéndose por tales las que tengan carácter de intervención total o las parciales que produzcan una variación esencial de la composición general exterior, la volumetría, o el conjunto de su sistema estructural, o tengan por objeto cambiar los usos característicos del mismo.

La asimilación a edificios de nueva construcción conlleva principalmente **la obligación de registrar** tanto el CEE de proyecto como el CEE de obra terminada, **como obra nueva**. Cuando la calificación energética obtenida, tanto en proyecto como en obra terminada, sea mejor o igual que C, la persona promotora o propietaria deberá contratar el control de la certificación energética a un Agente Acreditado, control que debe ser realizado tanto en fase de proyecto como en fase de ejecución.

En el caso concreto de las **segregaciones**, de un inmueble existente se crean varios inmuebles nuevos, por lo tanto, la certificación energética de todos ellos debe registrarse según lo anteriormente indicado.

Igualmente, los **cambios de uso característico**, es decir **de uso residencial privado a uso distinto del residencial privado**, y viceversa, también están obligados a certificarse energéticamente como si de obra nueva se tratara, ya que el inmueble resultante se encuentra obligado por CTE a someterse al cumplimiento de unas exigencias de calificación energética a las que anteriormente no estaba obligado, y a las que no estaría obligado de no haberse cambiado el uso característico.

Subsanación de errores o inexactitudes en certificados ya inscritos en el REGISTRO:

Cuando, habiéndose inscrito ya el CEE, se advirtiera **algún error o inexactitud** en el mismo **que afecte a la calificación energética obtenida**, incluyendo los valores obtenidos de Consumo de Energía Primaria No Renovable y de Emisiones de CO₂, se debe proceder a la **solicitud de la cancelación** del mismo, para posteriormente proceder nuevamente a solicitar la inscripción del CEE corregido.

Cuando, habiéndose inscrito ya el CEE, se advirtiera **algún error o inexactitud en los datos administrativos** aportados al REGISTRO,

emandako administrazio-datuetan, adibidez katastro-erreferentzia, jabearen/sustatzailearen datuetan edo ziurtatutako higiezinaren kokapenean, datu horiek **zuzentzeko eskaera** egin ahal izango da.

Ezerezteko eta zuzentzeko eskaerak ERREGISTROaren webgunearen (www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa) *Izapidetzea eta Dokumentuen Ereduak* berariazko atalean ezarritako eredu eta prozeduraren arabera izapidetu beharko dira.

ERREGISTROaren webguneak (www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa) *Ohiko Galderak* izeneko berariazko atal bat du, non eraginkortasun energetikoaren ziurtapenaren arloan sor daitezkeen zalantzei EMIAZ honek emandako azalpenak eta erantzunak kontsultatu ahal izango diren. Bestalde, informazio horren edozein aldatketaren berri emango dizuegu, zuen kide diren teknikarien artean ahalik eta zabalkunde handiena lortzeko.

siendo el caso de la referencia catastral, datos de la persona propietaria/promotora o la ubicación del inmueble objeto de certificación, se podrá proceder a realizar la **solicitud de enmienda**.

Las solicitudes de cancelación y enmienda deberán tramitarse conforme a los modelos y procedimiento establecido en la página web del REGISTRO (www.euskadi.eus/certificacion-energetica) en su apartado específico de *Tramitación y Modelos de Documentos*.

La página web del REGISTRO (www.euskadi.eus/certificacion-energetica) dispone de un apartado específico de *Preguntas Frecuentes* en el cual podrán consultarse las aclaraciones y respuestas de esta DEMADI a las dudas que puedan surgir en materia de certificación de la eficiencia energética, independientemente de lo cual, os informaremos de cualquier modificación de la misma para conseguir la mayor difusión posible entre vuestro personal técnico colegiado.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 9an

Vitoria-Gasteiz, 9 de septiembre de 2020.

SIN./FDO.: IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA
ENERGIAREN, MEATEGIEN ETA INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIA
DIRECTOR DE ENERGÍA, MINAS Y ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL